

Data: Abenduak 28, asteartea

Orduetgia: 10:00 – 13:00

Lekua: Elgoibarko Musika Eskola
(Aita Agirre Plaza, 20870 Elgoibar)

Ikastaroaren prezioa: 15€

Izen emateko epea: Abenduak 19

Xemeingo ezpata-dantza


Zerutxu dantza taldea

Xemeingo ezpata-dantza

Arretxinagako San Migel ermitaren ondoan dantzatzeko du urtero Zerutxu dantza taldeak Xemeingo ezpata-dantza. Xemein eta Markinak udalerrri bakarra osatu zuten 1959an. Xemeinen dago Arretxinagako San Migel ermita berezia, eta ondoan du garai batean Xemeingo udaletxea izan zena. Ingurune berezi horretan, soka-dantza eta mahai-gainekoaren batera dantzatzeko da urtero irailaren 29an, ezpata-dantza.

Ezpata luzeekin egiten den ezpata-dantza berezia da Xemeingoa, Europako beste hainbat ezpata-dantzekin antzekotasunak dituena. Taldearen antolaketa, egiten dituzten zubiak, ezpatak gurutzatuz osatzen duten arrosa, haren gainera maisu-zaharra igotzeko ohitura... Koreografikoki ezpata-dantza aberats eta ederra da.

Iñaki Irigoien eta Felipe Amutxastegik bildutako datuen arabera, dagoeneko 1714an dantzatzeko zen ezpata-dantza Xemein-en San Migel egunez. 1943an Segundo Olaetak erreparatu zion Xemeingo-ezpata-dantzari, eta ikastearekin batera, ezpata-dantza horretan oinarritutako beste antzeko dantza bat sortu zuen, *ongiaren* eta *gaizkiaren* arteko borroka bat irudikatuz. *Arretxinagako San Migel* bezala ezagutzera eman zen dantza horrek hedapen handia izan zuen, baina San Migel egunean ermita ondoan ez zen dantzatzera iritsi. Gainera, 1979an, gerra aurrean dantzari izandako zenbaiten laguntzaz molde zaharreko mugimenduak berreskuratu zituzten Xemeingo ezpata-dantzarako Zerutxuko dantzariak eta arduradunak. Horixe da ikastaro honetan irakatsiko duten ezpata-dantza.



Zerutxu dantza taldea (Markina-Xemein)

Markina-Xemeingo Zerutxu dantza taldea 1966an sortu zen. Hasiara batean umeei dantzan irakasteko asmoarekin, eta behin horiek nagusitu ahala helduen dantza taldearekin aurrera eginez. Markina eta inguruko ohiturak izan dira Zerutxuren lan-ardatza ordutik, eta berak biziberritzen ditu urtero besteak beste Xemeingo ezpata-dantza, soka-dantza edo aureskua, mahai-gainekoa, eta inauterietako Hartzaren dantza eta saragi-dantza.

Felipe Amutxastegi izan da Zerutxu dantza taldearen ibilbidean bultzatzaile eta sustatzaile nagusia, eta gaur egun ere bere babesa ematen jarraitzen dio taldeari, nahiz eta koordinazio ardurak Alex Larrinagak daramatzen.



Betebeharrak

- Gutxieneko adina: 16 urte.
- Dantzari eskarmentua izatea.
- Leku mugatua. Antolatzailearen esku geratzen da onarpen eskubidea. Dantza irakasleek izango dute lehentasuna.

Izen-ematea

Bidali mezu bat ikasi@dantzan.com helbidera honako datu hauekin:

■ Aurreko ikastaroaren batean parte hartu baduzu:

- Izen-abizenak
- Zein ikastarotan eman nahi duzun izena

■ Lehen aldia bada:

- Izen-abizenak
- Jaioturtea
- Tfnoa.
- Emaila
- Helbidea
- Herria
- Posta-kodea
- NAN
- Zure dantzari jarduera zein den adierazi.
- Dantza irakaslea bazara non diharduzun adierazi.
- Zein ikastarotan eman nahi duzun izena.

- **Dantzan Ikasi** Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimena da. **Dantzan.com** elkartearen arduratzen da egitasmoaren kudeaketa teknikoaz. Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzerra eta Ikerfolk elkarteek gainbegiratzen dute proiektuaren ibilbidea Dantzan Ikasi-ren Jarraipen Batzordetik.

Dantzan Ikasi
www.dantzanikasi.com
ikasi@dantzan.com
Tfnoa. 943 53 04 40
513 Posta Kutxatila
20600 Eibar

Kultura sustapen eta hedapeneko zuzendaritza
www.gipuzkoakultura.net

Koldo Mitxelena kulturunea
Tfnoa. 943 11 28 91
Urdaneta, 9 · 20006 Donostia-San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera



Dantzan Ikasi

azaroa 4 2010

- Ⓞ Ikastaroak
- Ⓞ Mintegiak
- Ⓞ Tailer teorikoak eta praktikoak
- Ⓞ Cursos
- Ⓞ Seminarios
- Ⓞ Talleres teóricos y prácticos

Euskal dantza balioan



Dantza tradizionalaren irakaskuntzan laguntzeko asmoz sortu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura sailak **Dantzan Ikasi** egitasmoa. Dantza tradizionala irakasgai duten irakasleei eta ikasten jarraitu nahi duten dantzariari, beren formazioan sakontzen jarraitu ahal izateko aukera eskaintzen ari da ikastaroen bidez, baina formakuntza hori sendotzeko beste lan lerro batzuk garatu dira. **Bi proiektu adierazgarri burutu dira: Gipuzkoako euskal dantza irakasleen ezaugarriak eta premiak ezagutzeko azterketa eta Dantza tradizionalako ikasketen oinarriko curriculuma.**

Gipuzkoako dantza irakasleen azterketa

Gipuzkoan dantza tradizionalaren alorrean irakasten diharduten dantzari eta irakasleen berri jasotzeko azterketa lana burutu da Kulturaren Euskal Behatokiarekin elkarlanean. 151 dantza irakaslek erantzun dituzte galdetegiak, eta Gipuzkoan zeregin horretan 300 irakasle inguru aritzen direla estimatu da, astean 10.000 ikasle inguru dituzte, eta 900 dantza ordu egiten dituzte astean dantza irakasten.

Dantza irakasleen %68 emakumezkoak dira eta %32 gizonezkoak, baina dantza taldeetan zuzendari lanetan ari direnen artean, %40 dira emakumeak eta %60 gizonezkoak. Dantza irakasleak oro har oso gazteak dira, batzaz beste 27 urte baititu dantza tradizionala irakasten ari denak, eta %47k 23 urtetik behera ditu. Dantza irakasleen artean %5 profesionalki ari da zeregin horretan. Irakasleen erdiak, %48k astean ordu bete edo bi ordu ematen ditu dantza irakaskuntzan, eta %12k berriz 10 orduetik gorako lan-karga dute dantza eskolak ematen.

Dantza formazioari buruz galdetuta, %75ek aitortzen du dantza irakasle aritzeko bere burua formazioz herren sentitzen duela eta prestatzen jarraitzeko aukera izanez gero ikasteko gogoz ageri dira. Dantza irakasleen formakuntza integral bat behar dela antzematen da. Eta hori bermatuko duen titulazio baten beharra aldarrikatzen du hainbatek.

Errepertorioa zabaltzarekin batera, dantza pedagogia da kezka gehien eragiten dituen. Dantzen alde praktikoa aldean, alde teorikoa ere gabeziak dituztela aitortzen dute irakasleek. Prestakuntza fisikoa eta teknikoak, musika edo motibazioa lantzeko sistemak dira besteak beste irakasleek beren formakuntza osatzeko faltan botatzen dituzten gaietako batzuk.

4 Dantzan Ikasi



La puesta en valor de la danza vasca

El Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa puso en marcha el programa **Dantzan Ikasi** para apoyar y reforzar la formación de los profesores de danza tradicional. A través de la organización de cursos se ofrece a los profesores la posibilidad de seguir formándose. Junto a esta línea de trabajo, se han desarrollado otras iniciativas. Por un lado, se ha realizado un estudio de las características y las necesidades de los profesores de danza tradicional en Gipuzkoa. Por otro, se ha confeccionado el borrador de un currículum para estudios de danza tradicional.

Estudio sobre los profesores de danza tradicional en Gipuzkoa

Se ha realizado en colaboración con el Observatorio Vasco de la Cultura un estudio sobre los dantzaris y profesores que imparten danza tradicional en Gipuzkoa. 151 profesores han respondido el cuestionario y se ha estimado que en Gipuzkoa son cerca de 300 los profesores que enseñan danza tradicional. Una actividad que supone cerca de 900 horas lectivas de danza semanales en las que participan cerca de 10.000 alumnos.

El 68% de los profesores de danza son mujeres y el 32% hombres, pero en los puestos de dirección de los grupos de danza, las mujeres son el 40% y el 60% hombres. Destaca la juventud de los profesores. La media es de 27 años, pero el 47% tiene menos de 23 años. El 5% de los profesores se dedica profesionalmente a esta actividad. La mitad de los profesores, el 48%, dedica una o dos horas a la enseñanza de la danza, y en el otro extremo, para el 12% se trata de una actividad que le ocupa más de 10 horas semanales.

Sobre la formación de los propios profesores, el 75% reconoce que percibe lagunas en su formación para dedicarse a la enseñanza de danza tradicional, y se muestra dispuesto a seguir capacitándose si tiene opción para ello. Resaltan los profesores la necesidad de adquirir una formación integral y algunos reivindican una titulación que lo garantice.

La ampliación del repertorio y la pedagogía de la danza son los aspectos que mayor interés suscitan. Frente al conocimiento práctico de las danzas, buena parte de los profesores destacan sus carencias en el plano teórico. La preparación física y técnica, conocimientos musicales y técnicas de motivación son algunos de los aspectos en los que desean formarse los profesores.

Currículum de estudios de danza tradicional

Se ha trabajado en la confección de un borrador de currículum que recoge las competencias y contenidos que los intérpretes y los profesores de danza tradicional deberían desarrollar y conocer para completar su ciclo formativo. Para ello, se ha contado con la colaboración de instituciones y asociaciones de dilatada experiencia en el ámbito de la danza tradicional, y específicamente en la formación. Han participado en este trabajo Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarra, Ikerfolk, Eusko Ikaskuntzaren Folklore Saila, Aiko taldea y Gasteizko Folklore Akademia.

Una vez recogidas las propuestas de cada asociación, se ha realizado un trabajo de síntesis y edición, con el que se ha preparado el borrador del currículum para unos estudios en danza tradicional vasca. Con el objetivo de la puesta en marcha de una titulación en danza tradicional o que se puedan ir validando institucionalmente las iniciativas que se están dando en este ámbito se han establecido relaciones con el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

Toda la documentación está disponible en: <http://dantzanikasi.com>

Data: Abenduak 14, asteartea

Orduetgia: 19:30 – 21:00

Lekua: Dantzagunea.
(Arteleku-Kristobaldegi, 14. Txomin Enea, Donostia)

Prezioa: dohain

Izena emateko epea: abenduak 10

Zarauzko folklorea

Xabier Etxabe eta Xabier Alberdik Zarauzko folklorea sakon aztertu dute zenbait urtez eta lan horren emaitza argitaratu dute 'Zarauzko folklorea'. Ebuluzio historikoa, haren aldaketan egon diren interesen azterketa eta festa-ereduen inguruko hausnarketa' izeneko liburuan. Zarauzko folkloreaki begirada historikoa eta gaur eguneko eskaini diote, eta bildutako datuak bere testuinguruan kokatu eta ulertzeko ahalegina egin dute.

Euskal dantzaren ibilbidea herri baten adibidetik ezagutzeko aukera bikaina eskaintzen du lanak. Garai bateko Zarauzko folkloreaken bilketa xehea egin ondoren, dantza taldeen XX. mendeko ibilbideari erreparatu diote egileek. Mende hasierako dantzarien inguruko datuak, gerra aurreko urteetako dantza taldeen indartzea, gerra ostea, kultur eredu berriak, dantza eskolak, eta XXI. mende atariko egoera izan dituzte aztergai besteak beste.

Zarautzen egindako azterketa lanak eta bertan bildutako materialak interesgarriak dira bere baitan, baina horrez gain, euskal dantzaren ibilbide eta gaur egungo egoera orokorra bera hobeto ezagutu eta interpretatzeko gakoak eskaintzen ditu. Horixe eskatu diogu Xabier Etxaberi, Zarauzko folkloretik abiatuta esparru zabalago batean baliagarri izan daitezkeen analisi eta gogoeta ahalegin bat egiteko.



Zarauzko folklorea

Xabier Etxabe



Argia: Juanito Egnia

Xabier Etxabe Zulaika (Zarautz, 1974)

Zarauzko Iratzari dantza taldekoa, Mollarri taldearekin ere aritu izan da beste talde batzuen artean, eta aurreko txapelketan aritutakoa da. Eneko Alberdiri zor dio euskal dantzetan oinarriko formakuntza, ondoren Claude Iruetagoiena, Koldo Zabala, Mentxu Medel eta Garbiñe Aizpiterekin osatzen joan dena.

1998an EDBren ikastaro baten akuilatuta hasi zen Zarauzko folkloreaki buruzko informazioa biltzen eta horrela egin zituen adineko txistulari eta dantzariari lehen elkarriketak, eta lehen artibo-lanak. Gai horren inguruan Zarauzko Txaparro aldizkarian zenbait artikulu argitaratu ditu. Aitona triktilaria izana zuen eta haren kontuak bilduz, 2004an, *Lurtarra da begiratu* (Elkar, 2004) liburua argitaratu zuen. Xabier Alberdi historialariarekin elkarlanean idatzi du *Zarauzko folklorea* (Zarauzko Udala, 2009) liburua.

Eusko Ikaskuntzako Folklore saileko kidea da, eta han (dantzan.com) eta hemen (zuzeu.com) artikuluak idazten ditu aldian behin. Zarauzko folkloreak gain, aipagarriak dira besteak beste Pirmin Treku edo Esteban Berazadiri buruz egindako lanak, eta folkloreaken infatilizazioa edo dantza estiloaren transformazioaz idatzitako gogoetak.

Data: Abenduak 18, larunbata

Orduetgia: 10:00 – 13:00

Lekua: Aritzatalde kiroldegia (Zarautz)

Prezioa: 15€

Izena emateko epea: abenduak 9

Dantza kantatuak boroblean: Irradaka eta Axuri-beltza

Boroblean eta kantuan egiten diren dantzak Europan ditugun dantzen artean zaharretarikoak direla esan ohi dute ikertzaileek. Soka itxian egiten diren branleak dira ohikoena, Pazkoetan edo San Juan jaien inguruan egiten direnak. Euskal Herrian ez da mota horretako dantza askorik bildu, eta ezagunena Urdiainen, Jesus Mari Satrustegik jaso eta Argia dantzari taldean berregin zuena da.

Bildutako dokumentaziotik abiatuta Argia dantzari taldeak egindako birsortze lanak azalduko ditu Juan Antonio Urbeltz-ek, eta horietako bat, Irradaka, dantzatzen irakatsiko du Argiako dantzariak lagunduta. Horrez gain, soka itxian ez, baina boroblean eta kantuan dantzatzen den Jaurrietako Axuri-beltza irakatsiko da. Orain 40 urte birsortu zuen Argiak dantza hori, eta bildutako dokumentazioa zein zen eta birsortze prozesua nola izan zen azaltzeaz gain, dantzatzeko argibideak eskainiko ditu Urbeltzek.

Juan Antonio Urbeltz (Iruñea, 1940)

Iruñean jaio bazen ere umetatik Donostian bizi da. Goizaldi taldean, Ignacio Gordejuela maisu zuela hasi zen dantzan, eta 1965. urtean Argia taldean euskal folkloreaken inguruko lanari ekin zion. Bertan, Marian Arregi emaztea eta lan-talde zabalago baten laguntzarekin, euskal folkloreaken bilketa lan handia burutu du. Argia taldearekin, Euskal Herriko folklore-dialektoei programa monografikoak eskaini zizkion 60ko eta 70eko hamarkadetan, besteak beste bostehun doinu baino gehiago erakutsiz. Euskal kultura tradizionalaren jarraipenerako egindako ekarpenetan jantziak, instrumentuak, forma orkestralak eta koreografiak berreskuratuta dira. Funtsezko ekarpena lan-mota diferenteetan egindakoa, 1978an Euskadiko Kutxak editatutako Dantzak liburutik hasi eta hamaika hitzaldi, irratzi-programa, egunkarietako artikulu, disko-edizio eta abar arte. 1988an Zortziko ikuskizuna estreinatu zuen; 1989an berriz Muriska baleta bertan sartu ondoren, ikuskizunak Alakiketan izena hartu zuen. Gerora beste ikuskizun gehiago etorri dira: Kondharian, Pas de Basque, Axeri-Boda eta 2009an Axuri-beltza. Guztietan bere sormen lanaren ekarpenek dantza eta koreografiaren mundua, musika eta jantzien munduekin lotzen du modu oso eta integral batean.



4 Dantzan Ikasi